

# Aretxagazeta


ETA GAINERA...

## Ze barri?

ASTEKO GAIA  
Agintaldiko azken  
osoko bilkura /8

HAUTSKUNDEAK  
M25eko datuen  
errepassoa /9

LEINTZ GATZAGA  
Hauteskundeetako  
datuen errepassoa  
/10



# SENDIAN PROGRAMA

Nagusien familiei laguntzeko ekimena jarriko dute martxan, laster



**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**OROKORRAK**

Almen	943 71 49 07
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxiko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Saretxo	943 71 26 56
Taxi geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

**UDALTZAINGOA**

Arrasate	943 79 14 39
----------	--------------

**LARRIALDIAK**

SOS Deiak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdia	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Ofiati)	943 78 28 00

**LORAMENDIREN AGENDA**

**'DAKIXENAK EINDAIXELA' BANATU DUTE**

Maiatzeko Dakixenak eindaixela esku-orria asteon banatu dute Kurtzebarri Eskolan. Bertoko galderaren erantzuna Loramendiko postontzira eraman (Durana 11).

**GUARDIAKO FARMAZIA**

**ZAPATUA, 31**  
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. .... 943 79 21 99

**DOMEKA, 1**  
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. .... 943 79 21 99

**OHARRAK**

**JULIA LEONEN KONTZERTUA**  
XV. eta XVI. mendeetako poesia eta musika izango dira entzungai gaur, egubakoitza, 20:00etan, udal-etxe zaharrean. Julia Leonek emango du kontzertua.

**KURTZEBARRIKO KARTEL LEHIAKETA**  
Kurtzebarriko 75. urteurrena ospatzeko Kartel Lehiaketa antolatu du Murruxikok. Kurtzebarriren 75. urteurrena irailak 14 jarri behar da kartelean, eta ekainaren 23a baino lehen Murruxixora eroan. Saria 150 euro da.

**ANDRAMAIXETAKO KARTEL LEHIAKETA**  
Andramaixak iragartzeko erabiliko den kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu du Kultura Sailak. Andramaixak 2003 abuztuaren 14a, 15a, 16a eta 17a Aretxabaleta jarri behar du, eta hilaren 23a baino lehen kultura etxera edo udaletxera eroan. Saria 270 euro da.

**DANTZA IKASTAROA**  
Nagusiendako dantza ikastaroa antolatu du Leizarra Musika Eskolak. Interesa dutenek bertan eman dezatela izena.

**ORAINDELA 9URTE ARETXABALETAN**

**Joseba Larrinaga jaun eta jabe Albaceten**


1994an, elbarrituendako Espainiako Txapelketan hartu zuen parte Joseba Larrinaga korrikalari aretxabaletarrak Albaceten. Parte hartu bakarrik ez, irabazi ere bai: 5.000 eta 1.500 metroetan urrezko domina eskuratu zuen, eta 800 metroetan hirugarren postua lortu zuen.



**ZORIONAGURRAK**



ARETXABALETA  
**Domi Lezeta**  
26an. Berandu bada ere, zorionak, lagun guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Koldo Zubillaga**  
29an. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Jenny Elisabeth Alberdi**  
30ean, 8 urte. Zorionak, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Amaia Berezibar**  
1ean. Zorionak, ARETXAGAZETAko langileen eta batzordekideen partetik.



ARETXABALETA  
**Jone eta Julen Perale**  
1ean, jaunartzea. Zorionak eta ondo pasatu du mekan, senideen partetik.



ARETXABALETA  
**Pako Miguel**  
4an. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA  
**Marisol Beltran de H.**  
5ean. Zorionak eta muxu handi bat, lehengusuen partetik.

**Zorionak!**

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak ARETXAGAZETAren bidez! Ekar ezazu bere argazkia\* eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

**Lubia**  
oinetakoak

zapatak, zapatilak, gerrikoak eta poltsak

Mitarte 14 • 943 79 16 00  
ARETXABALETA  
Biteri 1 • 943 79 66 53  
ARRASATE

**ANDRA**  
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3  
ARETXABALETA  
Tel. 943 79 29 26

**BASABE**  
jatetxea

Basabe bidea z/g  
Tel: 943 79 91 84  
Aretxabaleta

**OSKAR GARAJEA**

Tel.: 943 79 98 74  
Fax: 943 71 24 59  
Basabe Poligonoa, A-2-4  
ARETXABALETA

**OPEL**

**OPEL MERIVA**  
Auto berria  
askatasun kontzeptu berrirako

**GARAJE NORTE S.L.**  
Basabe bidea A 1-3 ARETXABALETA  
943 71 20 03 Faxa: 943 77 16 20







## ATREBENTZIAEZPADA/ Lelengo aldiz emakume bat eukiko dogu alkate lanetan; ze pentsetan jatzu?




**ANA FERNÁNDEZ**  
Langillie



**SANTI BALANTZATEGI**  
Langillie



**MAITE ZUBILLAGA**  
Langillie



**ILUMINADO HERNÁNDEZ**  
Jubilae



**MARI CARMEN ABAD**  
Langillie



**JUAN BORREGO**  
Langillie

Ondo. Neure ustez, emakumiok sentsibilidade haundixague daukogu. Biherbada, emakumion eta umien alde lan haundixague egingo dau. Aldaketa onerako izengo da.

Ondo dauela. Baiñe, neure ustez, Udalien, lan egite-rako orduen, ez da desberdinttasunik egongo emakumezko baten eta gizonezko baten artien. Ez leuke egon biherko, behintzet.

Neuk uste dot aginketako orduen ez dala diferentziarik egongo. Hala eta be, ikusi egin biher. Oin arte ez dogu emakumerik euki alkate lanetan, eta ia ze moduzko lana egitten dauen.

Edarto. Ordue zan alkate lanetan emakumezko bat eukituko. Udalien igerriko da hori. Hala eta be, inportantiena lana ondo egittie izengo da, eta ez zeñek egitten dauen lan hori.

Oso ondo dauela. Edarto pentsetan jat alkate lanetan emakume bat eukittie. Udalien igerriko da hori. Uste dot, gaiñera, orokorrien aldaketa ondo etorriko dala herrixandako.

Oso ondo pentsetan jat. Berdinttasun alde ordua zan emakume bati holako karguek emuteko. Emakukiek, orokorrien, askoz be zorrotzaguek die, eta uste dot ondo egingo dauela lan.

### TXALOAK ETATXISTUAK



**TXISTUAK KZGUNEA ORAINDIK ITXITA** Dagoeneko hilabete baino gehiago pasatu da KZGunea inauguratu zutela. Hala ere, inor gutxi izan du aukera hango ordenagailuetan ibiltzeko. Kontua da arazo teknikoak direla eta oraindik ez dutela Interneten nabigatzeko beharrezkoa den sarea jarri. Hori dela eta, horrenbeste denbora itxaroten ari diren herritarrek haserretzen hasi dira. /A.L.

### ETABARRUAN...

HAUTESKUNDEAK /04

ONGIZATEA /05

KIROLAK /06

#### Domekako emaitzak

Domekako hauteskundeetako emaitzak zeresana eman dute. Hemen herriko datu guztiak.

#### Sendian programa

Nagusi ezinduak etxean dituzten herritarrei laguntzak eskainiko dizkiete.

#### Preferente mailako taldea

Preferenteko UDAk joan den domekan amaitu zuen liga. Saiklapenean zazpigarren geratu da.

### ASTEKODATUA

# 115

#### LAGUN GEHIAGOK IZAN DUTE BOTOA EMATEKO AUKERA

Azken urteotan Aretxabaletako biztanleriak gora egin du. Horregatik, aurten azken hauteskundeetan baino 115 lagun gehiagok izan dute botoa emateko eskubidea; 5.246 lagunek, hain justu.

### BESTEKEKESANA

**“ Pozik oheratu ginen hauteskundeetako emaitzak ikusi eta gero, eta gaur ere (astelehena) pozik**

esnatu gara.


**Aretxabaletan, nik dakidala behintzat, ez da sekula alkate lanetan emakume bat ibili. Uste dut ni izango naizela lehenengoa.**

**Aurreko udal hauteskundeak kontuan hartuta 62 boto gutxiago izan ditugu. Ez dut uste datu hori gorabehera handikoa denik, ez eta esanahi berezirik duenik. Partaide-tza, egoera nahasia... Faktore asko egon daitezke.**

**Orain Gobernu batzordea eratu behar dugu eta gu (EAJ-EA) zabalik gaude. Gertu gaude batekin eta bestearekin berba egiteko. Uste dut beharrezkoa dela akordio batera heltzea.**

**ARRITXU OLIDEN**  
Arrasate Irratia/03-05-27

### HERRITARRENBERBAK/ Aitor Agiriano



*Bat, bi, hiru, lau...*

**b**ost, sei, zazpi, Real! Behin hauteskundeen parentesia “no coment” adierazgarri batekin itxita, egunotan dezenteko poza dakarren futbolari heltzea bururatu zait. Egia esan, honek ere, neurri handi batean politika dirudi; izan ere, arerio nagusiak madrildarrak ditugu.

Momentu historiko baten aurrean gaude. Nork esango zukeen iazko denboraldia ikusita aurten Erreala lehen postuan izango genuela? Bejondeio-la baina! Hasiera batean zortea zirudiena ahala dela dirudi. Garbi erakusten ari zaigu garaipena ez datzala beti irabaztean, baizik behin eta berriro saiatzean. Aspaldiko partez liga garaipena esku eskura dauka. Hogeita hamaseigarren jardunaldiaren atarian berriz ere lidergoa lortu du talde madrildarrari hortzak erakutsiz. Txapela lortuko duen edo ez ikusteko dago oraindik, baina oraingo-

ak esku artetik ihes egitea... lastima litzateke. Badakigu eta zer dagoen denboraldiaren hondarrean: jokalarien salerosketa.

Honezkerok makina bat taldek begiz jota izango ditu Errealeko jokalaria. Gainera, taldea ez da desegingo euroak

tartean egongo direlako bakarrik, jokalariek eurek ere, aukera izanda, beste talderen batean jokatzeko abagunea aprobe-txatuko dutelako, ulertzekoa den moduan. Hala ere, gure harrobia zain dezatela, eta etxeko-

ei ere ordain diezaietela euro mordo. Eta asko eskatzea ez bada, datorren urtean ere jantzi dezatela kamiseta txuri-urdina De Pedrok, Aranburuk, Alonsok...

Bilbotar, nafar eta arabarrok, lasai... haserretu gabe... Bilbo, agian, UEFA n sartuko da eta beste biek lehenengo mailari eutsiko diote; hala nahi genuke behintzat.

Lau euskal taldeak lehen mailan egotea ere ez da gutxi.

**“Txapela lortuko duen edo ez ikusteko dago oraindik, baina oraingoan esku artetik ihes egitea...”**

## Aretxagazeta

Durana 11  
20550 ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 86 21  
Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA  
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA  
Mirari Altube  
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA  
Goio Arana

PUBLIZITATEA  
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA  
SS-378-94

ISSN  
1134-2609

TIRADA  
3.800 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako Kultura Saila

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aretxabaletako Udala

Eskoriatzako Udala

Leintz Gatzagako Udala



# EAJ-EA koalizio irabazleak Gobernu batzordea norekin osatu erabaki behar du

MIRARI ALTUBE

Hauteskunde biharamunak ezusteko gutxi ekarri du gurera: EAJ-EA koalizioa izan da garailea, eta Aretxabaletan lehenengo aldiz emakumezko alkatea izango dugu: Arritxu Oliden. Aralar talde berriak, ostera, lau ordezkari izango ditu udalbatzan.

Ekainean osatuko dute udalbatza, baina alkatea Arritxu Oliden izango dela esateko moduan gaude. Edozelan ere, EAJ-EA koalizioak ez du gehiengo osorik lortu, eta Gobernu batzordea norekin osatuko duen erabaki beharko du datozen egunotan.


### EZKER BATUA GORA

EAJ-EA koalizioa izan zen garaile domekako hauteskundeetan Aretxabaletan. Boto kopuruari begiratuta, ostera, orain dela lau urte baino zertxobait gutxiago jaso zituen. Aretxa plataformak nabarmen egin du behera, eta legez kanpo egongo ez balitz bi ordezkari izango lituzke udalbatzan. Aretxak eta Aralarrek jasotako botoak batuz gero, orain dela lau urte EH taldeak jasotakoak baino gehiago dira. Hortaz, ezker abertzalearen botoa bi alderdi horien artean banatu dela esan daiteke. Ezker Batuak jaso zuen ezusteko handiena: 1999an baino 90 boto gehiago jaso zituen, eta lehenengo aldiz ordezkari bat izango du udalbatzan.

Batzar Nagusietako emaitzei



EAJ-EA  
ARRITXU OLIDEN



EAJ-EA  
Galo Sánchez



EAJ-EA  
Maitane Urrutia




EAJ-EA  
Jesus Mari Herrasti




EAJ-EA  
Mikel Uribebebarria



EAJ-EA  
Iñaki Sáez de Azkunaga




ARALAR  
Xabier Sarasua



ARALAR  
Peli Beltrán de Heredia



ARALAR  
Jose Angel Antxia



ARALAR  
Iñaki Sierra



PSE-EE  
Mari Carmen Atxutegi



EB-IU  
Jaime Muxika



PP  
Silvia Camporro

EAJ-EA	6
ARALAR	4
PSE-EE	1
IU-EB	1
PP	1
GUZTIRA	13


begiratuta, bestalde, EAJ-EA koalizioak eta AuBk Udalerako baino boto gehiago jaso dituzte, eta Aralarrek nabarmen gutxiago. Argi dago Udalerako hauteskundeetan pertsonak zeresan handia dutela.

### BOTOEN BANAKETA 2003

	Udala	Batzar Nagusiak
EAJ-EA	1.298	1.548
ARALAR	875	580
ARETXA/AUB	642	665
PSE-EE	399	421
PP	231	243
EB-IU	235	233

Zutabe bietako emaitzen artean alde esanguratsua ikusten da. EAJ-EA koalizioak 250 boto gehiago jaso ditu Batzar Nagusietarako eta AUBk ere gora egin du. Aralarrek, ostera, nabarmen egin du behera, ia 300 boto.

### UDAL HAUTESKUNDEAK



2003ko errolda: 5.246 / Abstentzia: 1.481 (%28,2)

### ZINEGOTZI KOPURUA, BALIOGABEAK ONARTUKO BALIRA

Aretxa plataformak 642 boto jaso zituen domekako hauteskundeetan: hortaz, legez kanpo egongo ez balitz ordezkari bi izango lituzke ekainean osatuko duten udalbatzan. Orain dela lau urte, ostera, sei lortu zituen EH taldeak.

	2003	1999
EAJ-EA	5	5
ARALAR	3	-
ARETXA	2	6
PSE-EE	1	1
PP	1	1
EB-IU	1	0

**IBARRA**  
estankoa



PRENTSA ETA  
IKASMATERIALA

Egunero zabalik

Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77  
ARETXABALETA

**MAITE**  
ileapaindegia

Sarasate, • 943 79 59 05  
ARETXABALETA

**IRIARTE**

Umeen  
denda



Helduen  
lentzeria

Durana, 8  
Tel.: 943 79 10 96  
ARETXABALETA

**Dorleta**  
taberna


Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8  
Aretxabaleta  
Tel.943 79 94 15

**SANER**

ITURGINTZA

Nafarroa 8, 2-A  
ARETXABALETA  
943 79 64 91  
605 71 66 92 / 629 47 72 70



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

**Aholkularitza**

Basabe poligonoa, F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA  
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68

**ANA'S**  
jantzi denda

Iparagirre 4.  
Aretxabaleta

GARBITU S. KOOP

**Garbiketa**  
orokorrak

Errekabarren 3- Behea  
ARETXABALETA  
Tel: 943 79 01 28



Miren & Zuriñe

Bitxitegia • Erloju denda

Bitxien diseinua

Bitxien konponketa

Otalora, 4 (eliza aurrekaldean)  
Tel.: 943 77 13 57  
ARETXABALETA



**ONGIZATEA/** Geroago eta nagusi ezindu gehiago dituzte etxean aretxabaletarrek

# Sendian programa jarriko dute abian, nagusien familiei laguntzeko

MIRARI ALTUBE

Maiatzaren 19an egindako osoko bilkuran onartu zuen Udalak hitzarmena egitea Gipuzkoako Foru Aldundiarekin. Hitzarmenarekin Sendian programa abian jartzea onartu zuten, eta nagusi ezinduak etxean dituzten familiei lagunduko diete.

Adineko nagusiak zaintzen dituzten familiei laguntzea hitzartu du Udalak Foru Aldundiaren Sendian programaren bitartez. Herriarrek dagoeneko egin dezakete eskaera Ongizate Sailean.

### HAINBAT ERATAKO LAGUNTZAK

Adinean aurrera egin ahala ezintasunek ere gora egiten dute, eta nagusiak etxean dituzten familiek lan handi eta lotua izaten dute. Bada, familia horiei laguntzeko Sendian programa jarri du abian Foru Aldundiak, eta Aretxabaletan ere eroango dute aurrera.

Programa horrek gaixo zaintzaileak hobeto prestatuko ditu. Bestalde, hainbat eratako laguntza emango diete ezinduen senideei: laguntza psikologikoa, laguntza teknikoak, boluntarioen laguntza... Dirulaguntzak eta erraztasun fiskalak ere izango



Adinean aurrera ezintasun handiagoak nagusiek, eta lan handiagoa familiek.

dituzte familia horiek, behar izanez gero.

### FAMILIEI ATSEDENALDIAK

Laguntza horiez gainera, familiek egun batzuetako atsedena hartzeko aukera izango dute. Horretarako, ezinduek aste bukaera

eguneko zentzoren baten pasa dezakete, eta opor garaian hainbat egun edo hilabete osoa ere egin daitezke egoitzaren baten.

Interesa duten herriarrek Udaleko Ongizate Sailean egin behar dute eskaera, eta bertan emango diete informazio osoa.

## LABUR

### Agintaldi honetako udalbatzak azken osoko bilkura egin zuen astelehenean, hilaren 26an

Astelehenean egin zuen azken osoko bilkura agintaldi honetako udalbatzak. Azken bi hilabeteotan egindako ezohiko osoko bilkuretako aktak onartu zituzten eta, bide batez, elkarri agur esan zioten.

Hala ere, agur-afaria aurreko egubakoitzean egin zuten alkateak eta zinegotzi gehienek Bergarako Zumelaga jatetxean; Maria Rosario Arrue PPko zinegotzia eta Iñaki Pierrugues PSE-EEkoa ez ziren egon. Lau urtean egindako lana eskertzeko eta oroigarri gisa oparixtoa jaso zuten guztiek afari bukaeran.

### Murrukixo dagoeneko hasi da Kurtzebarriko 75. urteurreneko ospakizunak gertatzen

Irailaren 14an beteko ditu Kurtzebarri mendiko gurutzeak 75 urte. Hori dela eta, Murrukixo Mendizale Taldeak hainbat ekintza antolatuko ditu urteurrenari merezi duen garrantzia emateko. Irailean, hain zuzen, Mendi Astea egingo dute Kurtzebarri ardatz hartuta: espeleologoak, Aranzadi Elkarteko kideren bat, mendizaleak, eta beste hainbat lagun etorriko dira hitzaldiak egitera. Lehenago, uztailean, Udaleku Irekietako umeekin landuko dute gaia. Eta abian dago urteurrenaren berri emango duen kartela egiteko lehiaketa.

### Cerrajera Valle Leniz enpresak Industrialdera joateko hitzarmena sinatu zuen Udalarekin

Lausitta kalean dagoen Cerrajera Valle Leniz enpresak hitzarmena sinatu zuen Udalarekin orain dela aste bi egin zuten osoko bilkuran. Hitzarmenaren arabera, sarrailak egiten dituen CVL enpresa lekuz aldatuko da eta lur horietan etxebizitzak egingo dituzte. CVLk, bestalde, sinatu zuen heritik ez duela alde egingo eta kokagunea Aretxabaletako Industrialdean izango duela.

## Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia



**HORMA-  
ARMAIRU  
AUKERA  
ZABALA**

Eta mota  
guztietako  
ateak.  
Informa zaitez!

Ateak • Leihak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak



Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak  
Moldurak, sarrailak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa



**AZKARATE  
AROTZEGIA**

Telleria, 19 B-0-2 B-0-3  
BERGARA  
Tel.: 943 76 47 19  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 77 01 24



**ARDATZA**

Brikolaketa

Masterreka, 4 behea.  
Tel.: 943 76 18 93  
BERGARA





FUTBOLA

# Zazpigarren postuan amaitu du liga preferente mailako UDA taldeak

Erregionaleko bigarren mailakoek bihar, zapatua, jokatuko dute iguera faseko azken partidua

AMAGOIA LASAGABASTER

Preferente mailako UDAREnda-ko bukatu da aurtengo liga. Joan den domekan, hilaren 24an, jokatu zuen azken partidua. UDAk, bigarren itzulian egindako lanari esker, zazpigarren postuan amaitu du liga. Orain oporrak izango dituzte, uztaileira arte.

UDAKo Zuzendaritza batzordeko kide Rafa Etxeandia pozik azaldu da aurten preferente taldeak egindako lanarekin. UDAk zazpigarren postuan amaitu du liga, 58 punturekin. Rafa Etxeandiaren esanetan, helburua zen mailari eustea, eta hori lortu eta gero pozik egoteko arrazoiak dituzte-lad.



ARTXIBOA

Uztaileira arte ez dute partidurik jokatuko preferente mailakoek .

**BIGARRREN ITZULIA EZIN HOBEA**

Liga makal hasi zuten. Ez zuten partidu askorik galdu, baina golak egitea izugarri kostatu zitzaie. Bigarren itzulia, berriz, ezin hobeia izan da. Jokatutako partiduetatik 30 puntu atera dituzte, eta hori lan ona egin duten seinale dela, dio Rafak. Hala, ondo merezitako oporrak hartuko dituzte -uztaileira

arte, hain zuzen ere- preferente mailako jokalariek.

Lanean jarraituko dutenak, bestalde, erregionaleko bigarren mailakoak izango dira. Horiek bihar, zapatua, jokatuko dute iguera faseko azken partidua. Gaz-

teak taldea izango dute aurrez aurre Ibarra futbol zelaian, 18:00etan. Partidua gol biko aldearekin irabaziz gero, Nedzadek zuzentzen duen taldeak erregionaleko lehenengo mailan jokatuko du datorren denboraldian.

TXUTXUMUTXUA



**Autodeterminazioaren aldeko gol ugari**

Autodeterminazioaren aldeko gol ugari sartu zituzten hilaren 24an eta 25ean jokatutako Futbito Txapelketa berezian. Zapatuan kanporaketak jokatu zituzten eta domekan, berriz, finala. Denetara zortzi taldek hartu zuten parte txapelketan, guztiak ere Aretxabaletakoak. Txapelduna Aneto taldea izan zen eta bigarren, berriz, Van Nisteroy geratu zen./A. L.

PILOTA

**Herri Arteko Pilota Txapelketatik kanpo gelditu dira Aretxabaletako pilotariak**

Hasi besterik ez, eta dagoeneko Aretxabaletako pilotariak Herri Arteko Pilota Txapelketatik kanpo gelditu dira. Aretxabaletako pilotariak etxean hiru partidutik bi irabazi zituzten Bergarako taldearen aurka. Kanpoan, bestalde, bergararrak izan ziren nagusi (2-1). Azkenean, kanporaketaren emaitza hiruakoa izan den arren, tantoari esker bergararrak egin dute aurrera txapelketan.



Makina Erremintaren Institutua

Instituto de Máquina Herramienta

**INFORMAZIOA:**

**Makina Erremintaren Institutua**

Azkue auzoa 1 - 20870 Elgoibar

Tel.: 943 74 82 65 - 74 4132.

Faxa: 943 74 41 53

Posta elektronikoa: amaia@fmh.es

www.imh.es

Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako Ikastetxe Publikoen sareko partaidea.



2003-2004 ikasturtea

## HEZIKETA ZIKLOAK

**GOI MAILA (A eta D ereduak)**

- Proiektu mekanikoen garapena
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Industri ekipoen mantenimendua

**ERDI MAILA (A eta D ereduak)**

- Mekanizazioa

**ATEAK ZABALIK  
ekainaren 5ean,  
19:00etan**



**Egun, enpresek langile tekniko kualifikatuen behar handia daukate**



**Izena emateko epea: ekainaren 2tik 11ra, biak barne**



## ERRETRATUZAHARRA

# Tximista taldearen gorabeherak

**A**sko aldatu dira gero garaiak urte gutxian. Oraingo umeek ordenagailua, PlayStation-a eta antzeko trasteak behar dituzte denbora pasatzeko. Gazteak, ostera, taberna zuloetan sartzen dira eta kito. Lehen ez zen horrelakorik, ez horixe. Pilota eta futbola, futbola eta pilota. Horretan pasatzen zuten mutil gazteek denbora. Pilotan eskua handi handi egin arte jokatzeko zuten Kurtzebarri Eskola aldamenean zegoen frontoian. Futboleant, ostera, lehenengo Bedarretako futbol zelaian eta gero Ibarren jokatzeko zituzten herrian antolatutako txapelketak.

Erretratu zahar hau 1962an atera zioten Tximista taldeari. Herriko futbol txapelketan hartu zuen parte eta azken postuan geratu zen. Horrek badauka azalpena; izan ere, gazteenak eurak ziren, 17 urte azpikoak guztiak. Hurrengo urtean, ostera, txapelkunak izan ziren, aurreko urtean gertatutakotik ondo ikasi zuten-eta. Tximista taldeko jokalaririk batzuk geroago UDAko taldean ibili ziren: Okina, Unanue, Villar eta Arrese, esaterako. Jabier Igartuak epaile lanak egin zituen 1962ko txapelketan, baina bestelako jokalaria ei zen: "Aretxabaletarronda-ko ez zegoen Jabier Igartua moduko jokalaririk beste inon; gure izarra zen garai hartan", dio Luis Mari Otxoak.

Lagun arteko futbol txapelketa uda partean jokatzeko zuten herriko mutilek; izan ere, Ibarrenko futbol



zelaia ez zen hondatzea komeni, eta euri gutxi eginez gero gutxiago hondatzen zen belarra. "Futboleant jokatzeko ez genuen oinetako berezirik, abarkak erabiltzen genituen askotan eta baloiari aldrebes ere ematen genion. Kamisetak nork berea

ekartzen zuen eta denok antzekoa izaten saiatzen ginen", dio Otxoak.

Goiko ilaran, ezkerretik hasita, honakoak daude: Luis Mari Otxoa, Andres Díez, Okina, Nikasio Unanue, Jesus Mari Arrese, Joxe Mari Lasa eta Jabier Igartua epailea.

Bigarren ilaran, berriz, ezkerretik hasita: Karmelo Usandizaga, Luis del Teso, Villar, Jesus Iturbe eta Juan Antonio Rodriguez.

Argazkia: Luis Mari Otxoa

**J.J. IRURE**  
ITURBENTZA

URA  
GASA  
KALEFAKZIOA

MITARTE, 15  
ARETXABALETA

943 793 187

**Mobiliario**  
**ARENZA**

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

**Expres**



Santakurtz, 16  
943 79 23 43

**Iber**

- ★ Loteria ★
- ✿ Paper denda ✿
- \* Liburuak \*

Otalora 2.  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 04 39

**JAR EZAZU  
HEMEN  
ZURE  
PUBLIZITATEA**

**Aretxagazeta**

**Ezkerretik**  
TABERNA

ZATOZ GURE MUSIKAZ GOZATZERA

Mitarte, 9 • Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 92 01

**PAGALDAI**

*Opari denda*  
*Lurrindegia*

Durana, 33 • Aretxabaleta  
943 79 10 14

**Jauregi**  
Okindegia

Otalora, 10  
Tel.: 943 79 57 47  
ARETXABALETA

**Morti**  
erloju-denda

Bere bezeroen  
zerbitzura

Mitarte, 16  
Tel.: 943 79 01 72  
ARETXABALETA



# Ze barri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2003ko maiatzaren 30a / 126. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

## Agintaldiko azken osoko bilkura egin du udalbatzak

AMAGOIA LASAGABASTER

**Atzo, eguena, egindako osoko bilkurarekin agur esan zioten Edorta Zubizarreta alkateak eta udalbatzarreko gainerako kide guztiek agintaldiari. Hala ere, amaiera gozoagoa emate aldera, ekainaren 13an Udaleko langileekin batera bazkaria egingo dute herrian.**

Hasiera duen guztiak izan ohi du amaiera, eta herriaren alde azken lau urteotan lanean ibili diren udalbatzako kideei ere heldu zaie agur esateko unea. Agintaldi honetan denetarik izan da Udaleko Gobernu batzordeetan eta osoko bilkuretan. Edozelan ere, Edorta Zubizarretak, egondako gorabehera guztien gaineratik, lantaldean izan duten giro ona azpimarratu gura izan du.

### DIRULAGUNTZA

Atzoko osoko bilkuran hainbat gai izan zituzten etabaidatu eta onartzeko. Horietako bat herrialde behartsuenekiko lankidetzaren programaren barruan dirulaguntzak emateko deialdia izan zen. Horren arabera, Eskoriatza-

ko Udalak, urtero moduan, aurten ere gobernuz kanpoko erakunde-ei dirua emateko konpromisoa hartu du. Hain zuzen ere, 21.534 euroko laguntza ematea erabaki zuten atzoko osoko bilkuran. Diru horretako zati handiena hurbileko bi erakunderendako izango da: Atxorrotx-endako eta Felix Iñurategi fundazioarendako.

*Egindako lan gehientsuenak udalbatzak aho batez hartutako erabakiei esker egin dituzte*

*Lau urte horiek ospatzeko, Udaleko langileek eta zinegotziek bazkaria egingo dute*

### LAU URTE ELKARREKIN LANEAN

Lau urtean lan ugari egin daitezke, eta Eskoriatzako Udalak halaxe egin du. Edortaren esanetan, gainera, lan gehientsuenak udalbatzak aho batez hartutako erabakiei esker egin dira. Horregatik esan du erabaki politikoen gainetik herritarren interesak defendatzeko lantaldea osatu dutela bukatzearen dagoen agintaldi honetan.

Egindako lan guztien artean, udaletxeko eraikina zaharberitzeko egin den lan paregabea azpimarratu du Edorta Zubizarretak. Orduan lan egiteko era aldatu zutela gogoratzen du. Politikariek eta langileek osatutako batzordea osatu zuten, eta han adostu zituzten udaletxearen zaharberitzeari zegozkion gai guztiak. Emaitza begi bistakoa dela dio alkateak.

Lankidetzan egindako lau urte hauek ospatzeko, Eskoriatzako Udaleko langileek eta zinegotziek bazkaria egingo dute ekainaren 13an. Hitzordu horretan ez da PSE-EEko zinegotzi Oscar García egongo; izan ere, Oscar Garciak agintaldia hasi eta berehala utzi zuen Eskoriatzako Udalean zuen kirol zinegotzi kargua.

### TXUTXUMUTXUA



### Gipuzkoako Eskola Arteko 23. Bertsolari txapelketa jokatu zen Arizmendi Ikastolan

Ibarretik etorritako ia 300 gaztetxo batu ziren joan den egubakoitzean Arizmendiko Almen gunean. Bertso-paperetan eta bat-batean jardun zuten Lehen Hezkuntzatik hasi eta Batxilergo mailarainoko ikasleak. Bertso-paperetan Debagoieneko eskoletako ikasleek hartu zuten parte; bat-batekoan, berriz, ibarreko ordezkariak ez eta, Zarauzko, Elgoibarko eta Hernaniko hiru talde ibili ziren kantuan. Aretoa jendez gainezka egon zen. /A.G.



### Euskara Girotze barnetegian egon dira ikasleak

Luis Ezeiza Herri Eskolako 3. mailako 16 neska-mutiek Segurako Euskara Girotze barnetegian pasatu dituzte hiru egun. Ikasleek euskara lantzea eta indartzea izan du helburu egonaldiak. Urtero joaten dira 3. eta 4. mailako ikasleak Segurara. Normalean bost eguneko egonaldia egiten badute ere, aurten hiru egun pasatu dituzte barnetegian. Jolasak, dantzak, antzerkia eta txangoa egiteko aukera ere izan dute ikasleek, Zeraingo Museoa bisitatu baitute. Oso ondo pasatu ei dute umeek.

### LABUR

### Axtroki Euskara Elkarteak batzar orokorra gaur

Bost puntu nagusi izango ditu Axtroki Euskara Elkarteak gaur, egubakoitza, iluntzeko zazpitan egingo duen batzar orokorreko gai zerrendak: 2002ko balorazioa eta balantze ekonomikoa; 2003ko jarduera plana eta aurrekontua; Tortolis ludotekaren 2002ko balorazioa eta 2003ko jarduera plana; Goiena-Ze Barri?-ren azalpena; eta bosgarren puntua, azkenik, galde-eskeetarako tartea izango da. Batzarra Euskal Txokoan egingo dute.



# EA-EAJ koalizioak gehiengo osoa izango du Eskoriatzako Udalean

AINTZANE GARDOKI

Maiatzaren 25ak ezusteko gutxi ekarri zuen Eskoriatzara. Kontzejupe herri plataforma legez kanpo egonik, EA-EAJ koalizioa izan zen garaile. Hortaz, Juan Carlos Bengoa izango da Eskoriatzako alkate. PSE-EEK eta EBk ordezkartzak bikoiztu egin dituzte.

EA-EAJ koalizioak gehiengo osoa lortu zuen domekako udal hauteskundeetan; udalbatza osatuko duten hamaika 11 sei lortu zituen koalizioak. Hortaz, ekainean osatuko den udalbatza berriaren buru Juan Karlos Bengoa izango da.

PSE-EE alderdiak, berriz, ordezkari bi izango ditu datozen urteotan: Iñaki Pierrugues eta Julio Bellido. Bestalde, Xabier Zugasti, azkeneko zortzi urteotan Ezker Batuko zinegotzi izan dena, pozik zegoen. Ordezkari bi lortzea zuten helburu, eta aurrerantzean Juan Luis Merino alderdikidea izango du lagun Udalean. Elizatei dagokionez, aurreko hauteskundeetan baino boto gutxiago lortu dituzten arren, izango dute ordezkaria udalbatzan. Eta Kontzejupeko hautagaiek, berriz, *Ilegala ni?* zioen elastikoarekin eman zuten botoa. Eskerrak eman gura izan dizkiete herritarrei, eman dieten babesagatik, eta lankidetzarako gertu daudela esan zuten.

Egunotan alderdiek barne batzarrak egingo dituzte, datozen asteotatik aurrera alderdien arteko elkarrizketekin hasteko.



EA-EAJ  
**JUAN CARLOS BENGOA**



EA-EAJ  
**Josu Ezkurdia**



EA-EAJ  
**Maider Otamendi**



EA-EAJ  
**Begoña Eraña**




EA-EAJ  
**Karmelo Lezeta**



EA-EAJ  
**Florentino Galindo**



PSE-EE  
**Iñaki Pierrugues**



PSE-EE  
**Julio Bellido**



EB-IU  
**Xabier Zugasti**



EB-IU  
**Juan Luis Merino**



ELIZATEAK  
**Javier Villar**


EA-EAJ	6
PSE-EE	2
IU-EB	2
ELIZATEAK	1
GUZTIRA	11

## BOTOEN BANAKETA UDALEAN ETA BATZAR NAGUSIETAN

Bi zutabeetako emaitzen artean badago desberdintasunik: EA-EAJ alderdiak batzar Nagusietan 200 aldeko botoa izan du udal hauteskundeetako. Aralar alderdia udalerako aurkeztu ez bazen Batzar Nagusietarako 150 boto jaso ditu. AuBk, Kontzejupekiko, berriz, behera egin du.

	Udala	Batzar Nagusia
EA-EAJ	762	947
KONTZEJUPE/AUB	572	498
PSE-EE	323	333
EB-IU	291	213
ELIZATEAK	214	—
PP	123	157
ARALAR	—	150

## UDAL HAUTESKUNDEAK




2003ko errola: 3.330 / Abstentzioa: 1.016 (%30,6)

## ZINEGOTZI KOPURUA, BALIOGABEAK ONARTUKO BALIRA

Kontzejupe plataformak 572 boto lortu zituen joan den domekan. Hala, legez kanpo egongo ez balitz hiru zinegotzi izango lituzke osatuko den udalbatza berrian. Sentimendu gazi-gozoa zen nagusi aurreko domekan alderdikideen artean.

	2003	1999
EA-EAJ	4	3
KONTZEJUPE	3	5
PSE-EE	2	1
EB-IU	1	1
ELIZATEAK	1	1
PP	0	0



- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki 3  
Tel.: 943 71 31 29 Eskoriatza 20540

AZKOAGA  
ESTANKOA

943 71 48 77  
Zure  
Zerbitzura


LENIZ, C.B. KONPONKETAK



TXAPA, MARGOA  
eta MEKANIKA

Aingeru Ibiltokia, z/g. • Tfnoa.: 943 71 50 61

BEIRALAN KRISTALDEGIA



- Ispilu bizelatuak
- Ateentzako beirateak
- Beirate grabatuak eta landuak
- Bainugelako altzari eta manparak
- Neurri zehatzetarako armaruak
- Enmarkazioak
- Lantegietako mantenimentua
- Beiran naiz metakrilatoan neurrira eginiko edozelango lanak

Herriko plaza, 8 behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274



DORILETA

Aranburuzabala, 22 behea  
ESKORIATZA  
Tfnoa.: 943 71 51 20

Calderería  
Cantera, S.L.  
ALUMINIOAK

Zurgintza alumioa erabilia

Aingerugardakoa ibilbidea z/g  
T. 943 71 49 11 F. 943 71 44 21  
ESKORIATZA



# Nerea Maruri izan zen herritarren zerrendan boto gehien jaso zuen hautagaia

AINTZANE GARDOKI

Normaltasuna izan zen nagusi joan den domekan, maiatzaren 25ean, Gatzagan. Herritarren %85ek eman zuten botoa. 166 boto jaso zituen herritarrekin osatutako zerrendak eta bi boto, berriz, PP alderdiak. Herritarren artean Nerea Marurik jaso zuen boto gehien.

Goizeko zortzietan elkartu ziren bederatzita herritar eskolan: mahaian egon behar zuten hiru titularrak eta titular bakoitzeko bina ordeko. Mahaia osatu eta gero, Edorta Arana presidentea, Iñaki San Pedro eta Jose Mari Agirregabiria lagun zituela, 09:00etan puntuan zabaldu zituen eskolako ateak. GOITBko langile Aritz Altube izan zen Leintz Gatzagan botoa ematen lehena, ibarrean hauteskunderen jarraipena egin behar zuela-eta.


Normaltasuna izan zen nagusi egun osoan. 12:00etarako herritarren %25ek emana zuten botoa dagoeneko. Mezaren aurretik eta mezaren ondoren egon zen, dena dela, mugimendu handien.

Juan Mari Makazaga izan zen herriko hautagaien artean botoa ematen lehena; Eugenio Otsoak, berriz, eguerdian eman zuen botoa; eta Jon Sasiain izan zen azkena. Joserra Pérez eta Nerea Maruri, orain dela gutxi Gatzagara bizi izatera joan diren bi arrasatearrak, Arrasaten eman zuten botoa.

## MAHAIKIDEAK AZALPEN UGARI

Jakina da herritarrekin osatutako zerrenda eta PP alderdiak aurkeztutako artean, herritarrek gehienez lau izeni eman behar zieten botoa. Dena dela, bozkatzeko prozedura berezi horrek nahasmena sortu zuen gatzagar askoren artean. Horren ondorioz, mahaiako presidentek banan-banan azaldu zuten boto emaleei gehienez lau izen markatu behar zituztela hauteskunde-txartelean. Nagusi zein gazte batzuek makina bat lan izan zuten botoa ondo emateko.

Elizako kanpandorrea iluntzeko zortziak jotzen ari zirela itxi zituzten eskolako ateak, eta botoak kontatzen hasi ziren. Mahai-



Eguerdia aldera joan zen herritar gehien botoa ematera.

AINTZANE GARDOKI

Herritarren %85ek eman zuten botoa joan den domekako hauteskundeetan

Herritarrez osatutako zerrendak 166 boto jaso zituen eta boto bi PP alderdiak

Joserra Pérez izango da datozen hilabeteotan, behintzat, Gatzagako alkate


kideez gain, Berme batzordeko kide bat, posta zerbitzuko ordezkaria, udaletxeko idazkaria, bake epailea eta hainbat herritar batu ziren. Zabaldu zuten lehenengo botoa PP alderdiarendako zen; azkenean, baina, 166 boto jaso zituen herritarrez osatutako zerrendak eta bi PPK. Boto bi baliogabeak izan ziren: Aretxabaletako EAJ-EAri botoa ematen zion bat eta gutun berean zegoen Batzar Nagusietarako beste boto bat. Eugenio Otsoa pozik azaldu zen: "Heldutasun maila handia erakutsi du berriro ere Gatzagak". Joserra Pérez izango da datozen hilabeteotan, behintzat, alkate.

## ZINEGOTZIEN BOTOAK

Nerea Maruri	147 boto
Jose Ramon Pérez	136 boto
Eugenio Otsoa	131 boto
Jon Sasiain	127 boto
Juan Mari Makazaga	116 boto




## UDAL HAUTESKUNDEAK



2003ko errolda: 211 / Abstentzioa: 32 (%15,2) ■ 2003 ■ 1999

## BATZAR NAGUSIETARAKO BOTOAK



2003ko errolda: 211 / Abstentzioa: 32 (%15,2) ■ 2003 ■ 1999

aroztegia  
**LEINTZ**

Aingerugarako ibilbidea  
Tel.: 943 71 49 36  
ESKORIATZA (Gipuzkoa)

- Sukalde altzariak egiten ditugu
- Armairu enpotratuak
- Neurri bereziak

# Ze barri?

Izan zaitez zeu ere berriemaile!

Zure taldearen, auzoaren, elkartearen...  
gaineko informazioa emateko, deitu gura!

943 79 86 21





**ALTUNA**  
**HARATEGIA**  
San Pedro 3  
ESKORIATZA



**ANGELINES**  
**AUTOZERBITZUA**  
Mitarte 16  
ARETXABALETA



**BEATRIZ**  
**ARRANDEGIA**  
Otalora 19  
ARETXABALETA



**BENGOA**  
**HARATEGIA**  
Durana 9  
ARETXABALETA



**CHARTER**  
**JANARI DENDA**  
Aranburuzabala 3  
ESKORIATZA



**ERREKABARREN**  
**FRUTATEGIA**  
Errekabarren 14  
ARETXABALETA



**ETXABE**  
**HARATEGIA**  
Durana 4  
ARETXABALETA

# OSAGAI ONENAK GURE KONTU



**IMANOL**  
**JANARI DENDA**  
Gorbea 8  
ARETXABALETA

Prestatu, zuk prestatuko  
duzu ondoen,  
baina osagai onenak  
gurean eskuratu  
ahal izango dituzu:  
**zure herriko dendetan.**



**IOSU**  
**HARATEGIA**  
Mitarte 1  
ARETXABALETA



**JON**  
**HARATEGIA**  
Loramendi 1  
ARETXABALETA



**LEIBAR**  
**ARRANDEGIA**  
Loramendi 1 / Mitarte 1  
ARETXABALETA  
Aranburuzabala 7  
ESKORIATZA



**PAGALDAI**  
**HARATEGIA**  
Gaztainadui 15  
ESKORIATZA



**ZUBIA**  
**HARATEGIA**  
Santa Ana 11  
ESKORIATZA



Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada  
**giro!**

**Amets taberna**



Taberna eta kafetegia  
Iparragirre 4. 943 79 01 29

**ORLY**

Herriko plaza  
943 79 09 33  
ARETXABAleta



*Matikua jatetxea*

Azatza auzoa ARETXABAleta 943 79 16 68

**URBALTZ**  
TABERNA



Mitarte, 21 behea  
Tfnoa.: 943 79 79 79  
ARETXABAleta

**IOSU**  
taberna  
harategia

Urdaitegia-gozotegia  
Kroasantegia  
Gertatutako janariak

Mitarte 1  
Tel.: 943 77 03 08



**HIRUSTA JATETXEA**  
Zatoz gure sukaldea ezagutzera



Ilargi plaza 4. Tel. :; 943 79 06 57

**IBARRA**  
JATETXEA

Menua  
eta  
karta

Araba ibilbidea 29  
ARETXABAleta  
943 79 18 03



**Aretz**  
taberna



ORDUTEGIA:  
Astelehenetik ostiralera  
9:00etatik zabalik  
Astebukaeretan  
11:00etatik aurrera

Markole, 5 behea  
Tel.: 943 79 14 67  
ARETXABAleta

**IZOTZ**  
Taberna


Mitarte, 16  
Tel.: 79 73 65  
ARETXABAleta

**Txalaparta taberna**



Aranburuzabala 25 ESKORIATZA

**GOYARAN ERRETEGIA**



Eguneko menua

Solohaundi 25 Aretxabaleta 943 79 68 57

ESKORIATZA

**Bazkariak**  
eta  
**afariak**

Tfno 714345



MENDIOLA

ERRETEGIA

Mendiola auzoa  
ESKORATZA  
943 71 43 45  
Astelehenetan  
itxita

**OTZETA**  
taberna jatetxea



Aranburuzabala 7  
ESKORIATZA. 943 71 51 90

**Taberna Berri**



Durana 26. ARETXABAleta. 943 79 20 67